

**MIRANDE KABARETA**

# **MIRANDE KABARETA**

ikuskituzun lotsagabea,  
ausarta eta  
politikoki ez-zuzena da.



Kabaretaren eta antzerkiaren artean,  
kafe-giroan jarduten dute  
antzezleek eta musikariek.



Ikuskizunak

**Jon Mirande**

idazle eztabaidatu

bezain goraiatuaren

bizitzako pasarte

bat du abiaburu.



Abiatu ondoren, ordea,  
hala antzezleek  
nola musikariek,  
zirikatzaile eta lotsagabe,  
ustekabeko bideetara jotzen dute,  
sexutik politikara eta alderantziz.





## SINOPSISIA

Bete da Andima Ibiñagabeitiaren ametsa: euskarazko kabareta. Bada euskal kabareta! Ez hark amestu bezala Bilbon edo Donostian, Parisen baino. Eta kabaretaren ametsaren berri Ibiñagabeitiak nori-eta Jon Miranderi eman zionez, kabaretaren izena, hain zuzen ere, **MIRANDE KABARETA** da.

Denetarako kantak eta musikak euskaraz! Hortxe dira kabaretaren aurkezleak, zein den gizonezko eta zein emakumezko bereizten zailak. Horiekin batera, zokondo batean, Jon Miranderen itzala antzeman ahal da. Musikariak ere hortxe dira, ikuskizunari ekiteko prest.

Non dira ostera kabaretean parte hartu behar dutenak? Horiek etorri bitartean aurkezleek gai asko astinduko dute, umorez, politikoki ez-zuzenak izanik eta sexuaren aipamen etengabez. Jo eta jo, musikariek ere ez dute bakerik izango. Harik eta ikuskizunean gonbidatuak ez diren beste batzuk agertu arte.

Umorea euskaraz hutsez, gaztelerazko kasik erreferentziarik egin gabe. Euskararen mundura ongi etorria izan zen Jon Mirande filo-naziari begirada. Tabu bat edo besteren urratsea. Euskararen munduari uko egin diotenen begirada. Atzo "bihar" zioenak oraingo gure "gaur" zioen, ala "inoiz ez" zioen?

Dioguna ulertzeko hona hemen Ibiñagabeitiak Miranderi egin eskutitzaren pasartea:

"Donostijan edo Bilbon biziko banintz euskal-kabaret bat irekiko nuke, orkesta bitxi batekin, edonolako eta edonondiko eserijak euskeraz emateko. Bai orixe. Gure arteko paristarrak gaiztatuko litzake, baina garaia dugu onezkero aien begietako ezkata ergelak betiko erausteko."

Jon Miranderi  
1951 - XI - 17

TESTUA ETA ZUZENDARITZA: EDORTA JIMENEZ  
MAITRE DE CERENQUIES: AIVE ZABALA ETA GALDER PEREZ  
MUSIKA ZUZENTEAN: TXOMA NURUGARREN ETA RAFA MEYES

MIRANDE  
**KABARETA**

**Jatorrizko ideia**

**Andima Ibiñagabeitia**

**Edorta Jimenez**

**Testuak**

**Jon Mirande**

**Andima Ibiñagabeitia**

**Edorta Jimenez**



## **EDORTA JIMENEZ**

### **Idea, testua eta Miranderen itzala**

Gaur egungo euskal idazle oparoenetakoa da. Sortzaile gisa, poesia jorratu zuen lehenik Edorta Jimenezek. Omar Nabarro izenpean kaleratu zituen Itsastxorien bindikapena (Susa, 1985), Egutegi esperimentalak (Susa, 1986), Gizaeuropa (Susa, 1986), Gaua zulatzen duten ahausietan (Susa, 1987), Eragiketa basatiak (Susa, 1987) eta Odoleko eskifaia (Susa, 1989) poemategiak.

1990eko hamarkadan narratibarako jauzia egin zuen Jimenezek. Genero horri dagokio Speed gauak (Susa, 1991). Bere hurrengo lanarekin, Azken fusila (Susa, 1993), Azkue literatur saria jaso zuen. Ipuingintzan ere aritua da Jimenez. Ildo horretan, bereak ditugu Urdaibaiko ipuin eta kondairak (Zubia, 1996), Gabriel Aresti saria irabazi zuen Atoiuntzia (Elkar, 1990), Manhattan (Elkar, 1994) eta Laudanoa eta sutautsa (Susa, 1996). Bere azken liburua aurten argiratu du, "Ispiluaren kalteak" (Elkar).

Egilearen beste obra batzuk dira Europako mugetan barrena (Txalaparta, 2001) kronika liburua, non Europan zehaz trenez eginiko ibilbidea kontatzen duen, Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan (Susa, 2004), San Fermingway. Otras historias de Ernest Hemingway (Txalaparta, 2005), George L. Steer, Gernikan izan zen kazetaria (Txalaparta, 2004), eta Robert Capa (Elkar, 2005) biografia.

Denetarikoa egin izan ditu: bolada batez marinel izan zen baita irakasle, telebista eta zinema gidoilari. Oraingoan antzerkera jauzia egiten du.

**Musika Txuma Murugarren**  
**Rafa Aceves**



## **TXUMA MURUGARREN**

**Musika eta ahotsa zuzenean**

Sasoi Ilunak taldearekin hiru disko kaleratu ondoren, bakarkako ibilbideari ekin zion. Honez gero bost disko argitaratu ditu.

Bere ibilbide musikala bilakuntza etengabea dela esan dezakegu, izan ere, diskotik diskora moduak, tonalitateak, soinuak, aldatuz eta esperimentatuz lan-bilduma oso pertsonala sortu baitu. Disko sakon eta anitzak egin ditu goi mailako musikarien laguntzaz. Kantu leunak, rock gordina, pop eta intimismoa aurki ditzakegu bere kantutegian .

Marjinalia da bere azken diskoa eta bertan heldutasuna eta kantu ederrak egiten maisua dela erakusten digu. Zuzenean formatu akustiko eta elektrikoan aritzen da.





## **RAFA ACEVES**

### **Musika eta pianoa zuzenean**

Pianojole eta bateria autodidakta dugu Rafa Aceves maisua. Hainbat euskal musika talderekin aritu izan da. Grabazio lanetan egon da esaterako: Doctor Deseo, Txuma Murugarren, Bullanga, Petti eta Sei Urte taldeekin esate baterako.

Gaur egun Manba Beat taldeko partaidea da. 2007an atera zuen Bilboko taldeak bere aurreneko diskoa eta bigarrenaren prestaketa lanetan buru belarri dabilta.

Antzerkirako musika konponketak egin izan ditu (Hiru txerritxoak), zinemarako konposaketa lanak (Un día cualquiera, El embarcadero) eta baita telebistarako ere.

Gainera, Rafa Acevesek, adimen urriko gazteekin lan egiten du musika klaseen bitartez.

**Antzezleak**

**Ane Zabala Gabikagogeaskoa  
Galder Perez**



## **ANE ZABALA GABIKAGOGEAŠKOA**

**Maitre de ceremonies**

1993. urtean Gilkitxaro antzerki taldea sortzen du. Bertan hainbat lanetan parte hartzen du aktore eta zuzendari bezala.

2005ean Glu Glu produccionesentzat lanean hasten da. 2005ean haurrentzat "Hiru Txeritxoak" eta 2006an "Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak" antzezlanetan aktore lanetan dihardu. 2006ean Eidabe ekimen kulturalak taldearekin "Kanpanolue" antzezlanean parte hartzen du.

Estreinatutako azken lanen artean aipatzekoak dira "Honolulu, leku bat" eta 2007an Zuberoako Hebertik konpainiarekin Fernando Arrabalen "Gernika".



## **GALDER PEREZ**

**Maitre de ceremonies**

1993. urtean Gilkitxaro antzerki taldea sortzen du. Bertan hainbat lanetan parte hartzen du gidoilari, aktore eta zuzendari bezala. 2001 eta 2003 urtetan Kafe Bilbao eta Bilboko Udalaren Idazketa Saria eskuratzen du "Eztenbako trikuak" eta "Krotos 2.0" lanekin.

Antzezlan ezagunetan parte hartu du: "Cocidito madrileño", "Todos nacemos vascos", "Ama quiero ser lehendakari", "Elevator" eta "Honolulu, leku bat" esaterako. Idatzi eta zuzendutako lanen artean aipatzekoak dira haurrentzat "Hiru Txeritxoak" eta "Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak" eta helduentzat "Kanpaiak jo bitartean".

Telebistan aritzen da aktore Goenkale telesaillean eta zineman lan egin izan du. Besteak beste aurki estreinatu behar den Aizpea Goenagaren "Sukalde kontuak" filmean.

**Jantzien diseinua**

**Iratxe Ostolozaga  
nino nonero**

**Koreografia laguntzailea**

**Ugaitz Alegria**

**Atrezzo eta eszenografia**

**Gilkitxaro**

**Makilaje diseinua**

**Izas**

**Kartelaren diseinua**

**nino monero**

**Argazkiak**

**Joseba Barrenetxea**

**Talde teknikoa**

**Abar & Soinueder**

**Ekoizpena**

**Abar Produkzioak  
Gilkitxaro  
AEK - Korrika**

**PRENTSA DOSSIERRA**

Antzerkia

Mirande Kabareta

# Sakontasun zirikatzailearen festa



Otsailaren 26an estreinatu zuten Bilbon *Mirande kabareta* ikuskizuna, antzerkia, musika eta hitza batzen dituen proposamen zirikatzailea. Gilkitxaro taldeak eta Abar produkzioak elkarlanean aurkezturiko ekoizpena da, Korrika Kulturalaren eskaintzari esker plaza ugari ezagutuko dituen.

**OIER GUILLAN**

*Argazkiak: Joseba Barrenechea*

GILKITXARO taldeko Gaber Perez eta Ane Zabala, Edorta Jimenez idazlea eta Txuma Murugarren eta Rafa Acebes musikariek bildu dituzten oholitz gainean *Mirande kabareta* ikuskizunak. Mahai gainean hasi, talde larreko sorkuntzaren bidez finkatu eta azkenean ohol-tza gainean iritsi den proiektua da honakoa. Zer eta gurean ezohikoa den kabaretaren forma oinarri hartuta, noren eta Jon Mirande idazlearen itzalean.

Edorta Jimenezek bota zuen arria. Jimenezek aspalditik zuen Andima Ibitagabeitiak Jon Miranderi 1951. urtean idatzitako eskutitz honen berri: "Donostijan edo Bilbon biziko banintz euskal-kabaret bat irrikiko nuke, orkestra bitxi batekin, edonolako ta edonandiko eresijak euskeraz emateko. Bai orise. Gure arteko parisaitarrak gaitzatuko litzake, baina garaia dugu onetzeko aien begietako ezkata erretzeko benko eraurteko."

Eta hona hainbeste urteren bueltan euskal kabareta, egileen ambersa ikusizun lotsagabea, ausarta eta politikoki ez-zuzena dena.

Kabaretak horren berezkoa duen probokazio ukitu hori izenean bertan topa dezakegu, Miranderen izena dela eta. Jimenezen aburuz polise-mikoa da Miranderen izena: "Nork hitz egiten duen Miranderi buruz azpimarratuko du euskal literaturari egin dion ekarpena edo haren ideologjaren edo haren idazlanen edukia. Beraz poliedrikoa da eta guztiz interesgarria". Gutunean jasotako ideia bitxia bezain erakargarria izanik Jimenezek balizko proiektuen zerrendan gorde zuen, Korrika Kulturalari esker Gilkitxaro taldearekin elkartu eta taulartzeko aukera sortu zen arte. "Lehendik idatzita neukan folio eta erdi, eta gero nire parte sortzea izan zen orgasmikoa ia, testua nahiko erraz sortu zitzaidan. Gero hor paperean geratzen dena hoztu egiten da eta berotu egin behar zen. Lehenengo irakurraldia egin zuten antzezleek eta baietz esan zuten. Behin lanean hasita ekarpenak egiten ere hasi ziren". Izan ere, literaturan ez bezala antzerkian talde lanean sortzeak baditu bere legeak. "Txuma sartu zen gero, eta eskatutakoaz gainera ekarri zituen bere gauzatxoak, azkenean piano joleak ere proposamena egin du eta onartu egin diogu... Testuaren hezurdura ez da aldatu baina denon artean osotuz joan gara, hobetuz esango nuke".

Kabaretak duen eromen kutsua aintzat hartzean gidoia aurretik idatzita egoteak kontraesana irudi lezake, baina Galder Perezek aipatu duenez hori da hain zuzen ere Ane Zabalaekin batera aktore gisa bizi izan duen erronka: idatzita dagoena errespetatuz inprobisazioari tartea uzteko modua eta energia topatzea. "Aldez aurreko lana izan dugu zentzu horretan. Pertsonailetan sartzeko garaian kontzentrazio aldetik asko eskatu digu, batez ere mugimendua eta arima ehuneko ehunean egoteko, eta ahotsa ere bai. Dena dela nik uste dut izugarri disfrutatuko dugula".

Jimenezek dioenez euskara aldetik ere bada apusturik. "Euskarak berak dituen baliabideak erabili ditut umorea egiteko". Gai politikoak, sexualak eta sozialak nagusi izanik, gaurretasunak bere lekua izango du gidoiaren barruan. Zentzu



Goiko argazkian *Mirande kabaretaren* momentu bat izoztu dugu: irudian, Ane Zabala eta Galder Perez. Beheko argazkian berriz, Gilkitxaro taldearekin batera lanean ari diren Edorta Jimenez idazlea eta Rafa Acebes musikaria.

**"Kabaret sexu-politikoak da egingo duguna, eta eduki aldetik guretzat saltoa izan da"**

Galder Perez

horretan Perez lasai ageri da: "Egileak emanaldi guztietan presente dago aktore lanetan, eta pentsatzen dut erraza izango dela edukia eguneratzea". Egun ez da oso ohikoa izaten idazlea horrelako saltza batean murgildurik topatzea, eta are gutxiago ezustean aktore bukatzea, Jimenezen kasuan bezala. "Nik planteatuta neukan moduan Miranderen itzala dago hitz egiten, eta nola ez zaidan aurpegia ikusiko erabaki genuen ni neuz izatea itzal hori. Ez da izan nik niretzat idatzitako testua, baina pozik nago".

#### Mirandekin bueltaka

Lili eta Marleen dira *Mirande Kabareteko* gidariak, lan egin ahal forma hartzen joan ziren izaki bereziak. Perezek aipatu duenez mahai lan handia egin zuten Jimenezek, Zabala eta hiruak Miranderen inguruan hitz egiten eta irakurtzen, pertsonaiek gero ondo kokatzeko. "Gure pertsonaiek haren burutazioetatik ateratako gauzak esaten dituztela ematen du, baina gehienak Miranderen pentsamenduetatik abiatutakoak dira, haien bertsio ero bat egiten dutelako". Mahai gaineko lanaren ostean batetik antzezpena lantzen hasi ziren eta bestetik musika, eta azkenean denak elkartzeari ekin zioten: "Azken asteak ikusizun guztia nolabait enpastatzen eman ditugu. Oso aberasgarria izan da gauza berri asko gehitu zaizkiolako. Batak bestea osatu du azkenean, musikak antzezpena eta antzezpenak musika".

Txuma Murugarrenek eta Rafa Acebesek hartu dute musika osatzeko ardura. Besteak beste Bob Fosse 1972an zuzendu zuen *Cabaret* filmaren musika erabili dute sarrezarako, Marlene Dietrich izan dute kontuan *Lili Marleen* kantuaeren bertsioa egiteko orduan, eta etxeko uztako kantu pare bat ere gehitu dituzte, besteak beste Jon Miranderen *Pigalle* poema oinarri hartuta. Murugarrenek aipatu duenez funtsean gerra aurreko kabareteko giroa hartu dute gogoan haien lana egiteko. "Irudi horretatik abiatuta, Rafa pianoarekin eta neuz ahotsarekin, Jon Miranderen poema batzuk musikatu ditugu tonu horretan. Beste kantu ezagun batzuk letra aldatuta euskaratu ditugu eta gure kabaretera egokitu. Badaude zati musikal batzuk ere, antzerki obraren joanean laguntza ematen dutenak".



## Hamabost urte bete ditu Gilkitxaro taldeak

GILKITXARO



Gutxitan gertatzen da antzerki talde batek urteen joanari eta, batez ere, teatroaren mundua bizitzeak dituen gorabehera eta zailtasunei aurre eginez proiektuz proiektu bizirautea. Eta are gutxiago euskaraz lan eginez. Gilkitxarok amateurtasunean kokatzen du bere ibilbidea, baina batzuetan hitz horri ematen zaizkion konnotazioak

argitu baino nahastu egiten dute. Ikusi besterik ez dago orain bi urteko Korrika Kulturalan aurkeztutako *Honolulu, leku bat* antzezlanaren bat aldiz eskaini duten, zenbat lekutan, eta nola haren ibilbidea ez den amaitzen, proiektu berrietan murgilduta egonik ere.

Ane Zabalak aipatu duenez badituzte hamabost urteak ospatzeko ideia batzuk. "Gure ibilbidea jasoko duen liburua egiten gabiltza, eta gure ideia da Gilkitxaron ibilitako jende guztia berriz elkartzea. Hamabost urtetan jende asko pasa da, eta bospaseik jarraitzen dugu aktibo. Gure nahia aurrera jarraitzea da, eta ateak zabaltzea jende gehiagori ere". *Mirande*

*kabareta* lanak bide berriak urratzen jarraitzeko aukera eman die, Galder Perezek idatzi ez duen testu batekin lehenengo aldiz. "Normalean berak idazten du testua, taldeko aktoreen neurria, ideia taldean landu eta gero". Puska batean *Mirande kabareta*rekin batera tartekatuko dituzte *Honolulu, leku baten* emanaldiak. "Hobere izango zen honetara dedikatzea, baina tira, azkenean hainbeste maitasunez egiten dugunez, jendeak asko deitzen du eta saiatzen gara leku guztietara joaten. Nik uste dut hor dagoela amateurtasunaren funtsa, txarto edo ez, bihotzez egiten duzun horrekin aurrera egiten duzu".

Musikariei ez zaie zaila egin beste sormen elementuekin bat egitea. "Ikuskizuna egiteak badauka bere lan egiteko modua, horrek eskatzen duelako uztartzea egiten ari zarena besteen lanarekin, baina azken finean guk musika egiten dugunean argi daukagu nondik gatozen, non bukatzen dugun eta gero zer datorren. Ez zaigu oso zaila egin". Murugarrenen lana ezagutzen duen entzuleari ez zaio arrotzegia egingo musikan nagusitzen den giroa "badu zerikusia *Marginalia* diskoarekin batez ere, irudi oso itxia zelako eta kabaretaekin zerikusia zuelako, hain zuzen ere".

### Publikoaren garrantzia

Bilboko estreinaldia egiteko ezohiko oholza aukeratu zuten, El balcon de la Lola izeneko puba. Ikuskizuna espazialki oso moldagarria da eta Korrika Kulturalaren haritik tankera ezberdinetako aretoetara eramango dute, beti ere kabareta publikoarekin konjektatze-

ko duen modu berezia aintzat hartzen saiatuz. Galder Perezek azpimarratu duenez "kabareta ezinbestekoa du ikuslea, ez da inoiz ikuskizun itxia izan". Perez eta Zabalarantz oso berezia izan da kabareta egitea, Gilkitxaroren lehenbiziko lana kabareteroan izan zelako duela hamabost urte "hasiera haietara bueltatzea izan da, eta era berean, erregistro aldaketa izugarria. Niretzat kabaret sexu-politiko da egingo duguna, eta eduki aldetik ere guretzat saltoa izan da".

Galder Perezek *Mirande kabareta*rekin batera *Kanpainak jo hitartean* izeneko proiektuarekin ere ezagutuko du edizio honetako Korrika Kulturalaren publikoa. "Euskal Herrian halako jardura bakarra dela esango nuke, epe laburrean kultur egitarau antza eskaintzen du Euskal Herri osoa hartuta. Niretzako Korrika da euskaldunok egiten dugun ekitaldirik hunkigarrienetakoa, hain garrantzitsua dugun hizkuntzaren oinarri hartuta". ■

**Ondarre**  
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54  
ondarre@hispania.com • www.nekatur.net/ondarre

# Aparrak estalitako ziztadak



Ane Zabala eta Galder Perez aktoreak, *Mirande kabareta* obraren entsugu batean. Atzean, Txuma Murugarren musikaria. JOSEBA BARRIKETXEA

Edorta Jimenezen 'Mirande kabareta' obra Korrika Kulturalaren barruan estreinatuko dute, gaur, Bilboko Balcon de la Lola aretoan

Ane Zabalak eta Galder Perezek taularatuko dute, Txuma Murugarren eta Rafa Acebesekin

Iruñe Berro Bilbo

Honako hau idatzi zion Andima Ibiñagabeitiak Jon Miranderi, 1951ko azaroan igorritako gutun batean: «Dirua izango banu, eta Donostian edo Bilbon biziko banintz, euskal kabareta irekiko nuke, orkestra txiki batekin, edonolako eta edonongo eresiak euskaraz emateko». Gertaera hura delagarrria begitandu zitzaion Edorta Jimenez idazleari. Lantzeko interresgarria, zabaltzeko egokia. Eta halaxe ekin zion *Mirande kabareta* obra idazteari, jazoera hura gogoan hartuta, eta ikuskizun lotsagabe eta zirikatzailea sortzea helburu jarrita. Ibiñagabeitiak Miranderi aitortutako ametsa bete du Jimenezek, eta Korrika Kulturalaren barruan estreinatuko du gaur, Bilboko Balcon de la Lola pubean (20:00).

Ane Zabala eta Galder Perez aktoreek eta Txuma Murugarren

eta Rafa Acebes musikariek taularatuko dute Jimenezek sortutako obra. Idazleak ikuskizunean parte hartuko du, halaber. Miranderen ahotsa izango da. Oihal baten atzetik mintzatuko da, Miranderen beraren itzala iradokiz. Obrak «kabaret politikoko sozia-laren» ezaugarriak izango ditu. Halaxe azaldu du Jimenezek. «XX. mendean, kale antzerkia zen kabareta. Egunerokoaren harira, sexua eta ziriak nahasten zizuten kabaretean, eta politikari astindu itzela ematen zioten».

Jimenezek idatzi duen testuak, horrenbestez, osagal horiek ditu: umorea eta kritika garratza. «Politikoki zuzena ez izaten saiatu naiz. Eta aktoreei gauza bakarra eskatu diet: prozesu horretan nirekin batera aritzeko». Ikuskizunean zuzendaririk ez baitago. «Denon artean osatu dugu obra, denok izan gara gidari», azaldu du Jimenezek. «Eta kabaretaren es-

piritua ahalik eta ondoen aurkez-te aldera, ahalik eta lotsagabeen jarduten saiatu gara», nabarmendu du idazleak.

Olerkiak, musikaturik

XX. mendeko kabaretetan bezala, *Mirande kabareta* lanean, musikak garrantzi handia du. Eta arlo horretako lana egiteko, Txuma Murugarrenengana jo du Jimenezek, «bera delako euskal musikaren munduan lan horretarako soslairik egokiena duen musikaria; bere ahotsa, bere presentzia... zuzenean aritzean erakusten dituen indarra eta nortasunak balio handia dute kabaretean». Pianoan, berriz, Rafa Acebes ariko da, «Murugarrenekin batera jo ohi duen pianista aparta». Miranderen olerkiak musikatu dituzte bien artean. Horretaz gain, kabaretean ohikoak diren piezak joko dituzte Murugarrenek eta Acebesek.

Abestiek lotuko dituzte eszenak. Musika izango da obra gidatuko duen haria. Miranderen ahotsa gaurko egunetara ekartzeko aitzakia. «Dranetik mintzatuko da Mirande, baina gaur egungo kontuz ere hitz egingo du».

Mirande pertsonaia ez dela politikoki zuzena izango azpimarratu du Jimenezek. «Inor baino ez-zu-

zenagoa izango da». «Bizirik zegoela esaten zuena esango du Mirandek: adibidez, bera ez zela faxista, nazia baizik».

Besterik ere esango du Mirandek, Jimenezen ahotsaren bidez: «Gehiago dira gure herrian euskara hitz egiteari uzten diotenak, euskara ikasteari ekiten diotenak baino». Mirandek euskara ikaste-ko ahalegina egin zuen; haren

Jimenezek sortutako antzeulanak osagai nagusi bi ditu: umorea eta kritika garratza

Miranderen pentsaera zirikatze eta zer pentsatua emateko baliatu dute obran

arrebak, ostera, ahazteko ahalegin sutsuak egin zituela dio Jimenezek, «frantsesez euskaraz baino hobeto jakin nahi zuelako». «Gaur egun ere gertatzen da Euskal Herrian: gehienek ahalegina egiten dute gaztelaniaz ondo mintzatzearen, *pretérito pluscuamperfecto* eta guzti. Eta euskara hobetzeko ez dute ahaleginik egiten. Areago: batzuek hitz egiteari uzten diote», salatu du idazleak.

«Gaztelaniazko kolperik gabeko» obra dela nabarmendu dute

→ *Mirande kabareta* obra idazteko, euskara ez den beste hizkuntza bat ez duela erabili adierazi du Edorta Jimenez idazleak. «Euskarazko umorea egitean, tradizionalki azken kolpea gaztelaniaz izaten da», idazlearen arabera. «Ez daukagu umore autoerreferentzialik. Hau da, bere buruari begiratuz ateraldiak sortzen dituen umorerik ez dugu Euskal Herrian». *Mirande kabareta* lanean, berriz, gaztelaniara jotzen duen umore mota horri uko egin diola azaldu du; «tantaka homeopatikoa izan daiteke, baina dosi handian itogarria da». Harago doa Jimenez. Idazlearen iritziz, «euskarazko umore testuen azken buztankada gaztelaniaz izatea negargarria da».

Alabaina, obran Miranderi buruzko tesirik ez dutela egin ohar-tarazi du. «Eta haren biografia kontatu ere». Idazlearen pentsa-bidea hainbat gairen inguruan jendea zirikatze aitzakiatzat hartu dute. «Ikus-entzuleei zer pentsatua emateko».

Denbora luzean, Jimenezek buruan jirabiran izan dituen gaien inguruan arituko dira aktoreak eta musikariak. «Zuzentasun politikoz denbora daramat pentsatzen; zer den politikoki zuzena eta zer ez, eta batez ere, zergatik. Adibidez, zer da politikoki zuzena homosexualitatearen aldetik? Ezkontzea? Zeren gay jendea ere ez-kondu egiten da gaur egun. Eta... lagunok! Hain da garrantzitsua ezkontzea?», bota du airera galde-ra Jimenezek.

Obra lagun giroan ondu dutela azaldu du. Eta, dioenez, «funtsekoa izan da lana aurrera ateratzeko». «Testua beldurrez aurkeztu nien, nola hartuko zuten ez nekien, baina primeran joan da dena, aktoreen lana, musikariena...». Azken emaitzarekin «oso pozik» dago idazlea. Baina obrari buruz hitzak neur-tuz mintzatu da, antzeulaneko pasarte ugari berretzat gordez. Hainbat zati ez ditu aurreratu nahi. Haatik, «ezuste atseginez beteriko ikuskizuna» eratu dutela adierazi du idazleak.

Umoreak tarte handia du obran, kabaretean xanpainak bezala. «Baina burbullak desegitean, gogoeta azaleratuko da, eta zapo mingotsa utziko du. Gogoeta eragilea da kabareta, tresna ideologikoa», uste du Jimenezek.

# Andimaren ametsa

## Kritika

### Antzerkia

'Mirande kabareta'

Egilea: Edorta Jimenez. Antzezleak: Galder Perez, Ane Zabala. Musikariak: Txuma Murugarren, Rafa Acebes. Off-eko ahotsa: Edorta Jimenez. Lekua: El Balcon de la Lola (Bilbo). Eguna: Otsailak 26.

### Agus Perez

**N**oren eta Jon Mirande deabrutuaren figura hartu du oinarritzat Edorta Jimenezek bere *Mirande kabareta*-ri ekiteko. Eta egokia deritzot, historikoki kabareta ikuskizun zirikatzailea eta kataritiko izan delako, bertan ideia ez onartuak, gai ukiezinak eta gustu onaren diktaduratik kanpo zeuden irudiak elkartzen baitziren, aginte politiko eta erlijiosoan daudenen disgusturako eta jende arruntaren gozamenerako.

Alde horretatik, bikaina izan da Mirande hautatzearen ideia, zeren eta zer izan daitekeen nazien aldekoa izatea baino arbuia-garriagoa? Eta, bestetik, nork jarri zuen hankaz gora inora ez zerraman euskal abertzaletasun klasikoa? Dударik gabe, zuberotar idazlea mendeetan izan dugun pertsonaiarik heterodoxoena eta probokatzailena da, baina bere probokazioa ez da hutsaltasumean oinarritzen, bere baitako pentsamenduan baizik, nahiz eta pentsamendu hori kontraesanez bete zegoen. Bere kategoria intelektuala eta Euskal Herriaren aldeko jarrera, aldiz, dudaz kanpo daude, eta hala ulertu zuten bere garaiko gizon handi batzuek, hala nola Andima Ibiñagabeitia bizkaitarra, Koldo Mitxelena gipuzkoarra edota Txomin Peillen zuberotarra.

Edorta Jimenezek, beraz, Miranderen ideiak, testuak eta olerkiak hartu eta kabaret forma eman die, bi musikari eta bi an-

tzezleren laguntzarekin, eta nik uste dut euskara hutsezko produktu zirikatzaile eta jasoa lortu duela —edo dutela, hobeto esanda—, beraiek aitortzen duten bezala sortze prozesuan zuzendaritza zentralik ez delako izan, denen arteko sorkuntza izan baita.

Hori dela eta, nik neure artean askoz produktu makalagoa espero nuen eta pozteko moduko sorpresa hartu dut emanaldia sendo-sendo eta etenik gabe aurrera zihola ikustean. Pentsalariaren testu mamitsuak trabarik gabe txertatzen ziren antzezleen gorputz-keinu eta imintzioen artean eta musikariak abestutako partitura ezagunek ezin hobeto eusten zioten emanaldiaren erritmo biziari. Bestalde, planteamendu eszenikoak asko lortu du oso gauza gutxirekin, eta nik bereziki nabarmenduko nituzke idazlearen presentzia ezkutatua, musikariaren itxura erdi patetikoa eta antzezle bien sexu-nortasun nahasia.



Ane Zabala eta Galder Perez, *Mirande kabareta*-n. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Izan ere, ni seguru nago lan hau sortzerakoan denak emanda ibili direla haiek guztiak, eta baikoitzak ahalik eta gehiena eman duela bere jakituria arloa elkarren zerbitzura ipintzeko. Gau-

zak horrela, mende erdi baten bueltan gauzatu da azkenean, Andima Ibiñagabeitiaren ametsa, alegia, euskal kabareta Bilbon edo Donostian zutik jartzearena.

Alas Alas...  
Alas Alas...  
Alas Alas...

Antzerkia

# Ondo, ongi, ontsa etorri

Deustuko Gilkitxaro antzerki taldea egunotan 'Mirande Kabareta' ikuskizun berria burubelarri prestatzen ari da. Oraingoan talde handia elkartu dira kabareta prestatzeko. Besteak beste, Edorta Jimenez idazlearen testua izango da eta musika Txuma Murugarren eta Rafa Aceves piano jolearena. Gilkitxarok, Abar produkzioak eta AEKak elkarlanean sorturiko antzezlana da. Otsailaren 26an estreinatuko dute Bilboko Bailen kalean dagoen Balcon de la Lola aretoan.



Mirande Kabareta ikuskizun lotsagabe, ausart eta politikoki ez-zuzen bezala aurkeztu dugute. Kabaretaren eta antzerkiaren artean, kafe-groan jarduten dute antzezleek eta musikariek.

Ikuskizunak Jon Mirande idazle estabaidatu bezain gorapetuaren bizitzako pasarte bat du abiaburu. Abiatu ondoren, ordea, ustekabeko bideetara jotzen du, hala antzezleek rola musikariek, zirkatzaile eta krusagabe, sexuik politikara eta viceversa.

Testuaren abiapuntua Andema Iñiñigabettia idazlearen gutun bat da. Hark Jon Miranden zera idatzi zion 1951. urtean. "Donostian edo Bilbon biziko barientz euskal-kabaret bat inkiro nake, orkestra biko batekin, edonolako ta edonondiko eresijak euskeraz emateko. Bai Orre. Gure arteko pariteriak garztatuko litzateke, baina garaia dugu onerikero aien begietako ezkata erjeuak bertko erautteko". Andema Iñiñigabettaren ametsa bete da; euskarazko kabareta. Sada euskal kabareta. Ez hark amestu bezala

# Mirande Kabaretera!

Bilbon edo Donostian, Parisen baino. Pigaleni Eta kabaretaren ametsaren berrirafagabetak nori eta Jon Miranden eman zionez, kabaretaren izena, hain zuzen ere, Mirande Kabareta da.

kizuna hasteko. Kabaretean parte hartu behar dutenak etortzen diren bitartean aurkezle biek gai ugari astinduko dute, umorez, politikoki ez-zuzenak izanik eta sexuaren aipamen etengabeaz. Jo eta jo, musikariek ere ez dute bakarik izango.

UMOREA

Kabareta zirkatzaile da eta Mirande kabareta hala prestatzen ari dira. Umorea euskara hutsez, gazteleraizko kaxik erreferentziarik egin gabe. Euskararen mundura 'ongi etorria' izan zen Jon Mirande filozofian begirada. Tabu bat edo beste urratzeko gogoz dator eta euskararen munduan uko egin ditenen gaineko begirada.

Denetarikoa kantu eta musika horitua, euskaraz. Hortxe dira kabaretaren aurkezleak, zein den gizonetako eta zein emakumezko bereizten zailak, Jon Miranderen itzala atzeman ahal da. Musikariek ere prest ikus-

## Korrika kulturala

Bi urtero gertatzen den moduan aurten Korrika egongo da. Horren aurretik beti AEKak korrika kulturala antolatzen du. Horren baitan estreinatuko da Mirande Kabareta ikuskizuna. Gilkitxarok Galdier Perez eta Ane Zabala izango dira antzezle ikuskizun berr honetan. Miranderen itzala Edorta Jimenez izango da, antzezlanean gidola ere berea da. Azkenik Kabaretaren musika sortzen eta zuzenean jotzen Txuma Murugarren eta Rafa Aceves izango dira.

Gilkitxarok aurreko Korrika Kulturalean parte hartu izan du eta oso gustura egon izan dra beti. Duela bi urte, esaterako, "Honoluku, leku bat" lan arrakastatsua egitarau honen barmean estreinatu zuten. Horrez gain, duela hamabost urte Euskal Herriari bira eman zioten "Infermuko atarian" lan selebrearekin. Taldeideek esan digutenez, "gara horiek nolabait gogora etortzen zaizkigu orain ere. Lan horiek kabaret txura zeukan eta orain berriz hortara bueltatzen gara, talde sendo bat inguruan dugula".

Bilboko estreinuaren ostean Korrika Kulturalekin batera Mirande Kabaretak ondorengo lekua bisitatuko ditu: Gasteiz, Donostia, Aizarna eta Igoite. Informazio gehagorako: [www.korrika.org](http://www.korrika.org) eta [www.gilkitxaro.com](http://www.gilkitxaro.com).

**Urranago zerlarako?**  
Deustuko Liburudendo  
Bos Pedro Plaza 4

**RENAULT**  
Zure ibilgailua eskurik onenetan

**RENAULT BILBO BERRI**  
Iru Arriaga, 20  
Tel. 94 440 39 00  
96050  
[www.bilboberrir.com](http://www.bilboberrir.com)

**ETXE ZAMA**  
Bilbo, 10. 944222222

**DEITU ETA IKUSI !!!!**  
**KM**  
Arriaga, 28 (Urranago Deustu)  
Tel. 94 447 7632  
Fax 94 448 2136  
Email: [info@km.com](mailto:info@km.com) / [reservas@km.com](mailto:reservas@km.com)  
Web: [www.patinosbilbao.com](http://www.patinosbilbao.com)

**ATXURI TABERNA**  
LUZARRA KALEA 1  
94 475 17 80

- Segurtasun Idurik
- Etsorako lekuak
- Pertsonen auzoragatuek
- Lekuak eta axidurak
- Korpeketak

## BALDINTZA TEKNIKOAK

ESKENATOKIA:6\*4 gutxienez  
Iluntasuna beharrezkoa da eskenatokian, aretoko argia baxu

Eskenatokian argi puntuak behar ditugu: 220V

<b>SOINUA</b>
PA - aretorako egokia
mahaia
3 mikro diadema
1 mikro inalanbriko
1 sm-58
2 monitore
2 mikro ohin
cd irakurgailua
2 injekzio kutxa
<b>ARGIAK</b>
Boteak 6
Panorama 2
Rekorteak 2 – 4
FILTROAK- guk daramagu
argien euskarriak
Argi mahaia eta dimerra
kableak
Sirena – guk daramagu -maha
ke makina – guk daramagu

ARETOAN BEHARREZKOA DEN EKIPOA EZ BALEGO, GUK ERAMANGO GENUKE FALTA DENA.

### ORDUTEGIAK:

**Muntaia:** emanaldia baino - 3 ordu terdi 4 ordu lehenago

**Aproba:** 2 ordu lehenago

**Ate irekiera:** ordu erdi lehenago



# HARREMANETARAKO

ABAR PRODUKZIOAK

– [abar@abarprodukzioak.com](mailto:abar@abarprodukzioak.com) –

94 479 36 66

665 722 529

Jardines kalea 10, 2. Ezk, 2. dpto  
48005 Bilbo





**MIRANDE KABARETA**

**ametsa bete da...**



